



Marta Revuelta
Aixerrota BHI, 13-14

Aurkibidea

Joan Mari Irigoien.....2

Sarrera.....2

Babilonia

● Kokapena.....3

● Gaia.....3

● Argumentua.....4

● Istorioa.....4

● Egituraketa.....5

● Pertsonaiak.....6

● Baliabideak.....8

Iritzia.....10

Bibliografia.....11

Joan Mari Irigoien

Joan Mari Irigoien Altzan jaio zen 1948an. Ingeniaritza ikasketak egin zituen, nahiz eta ez den sekula lanbide horretan aritu. Irakasle lanetan aritu zen, eta baita ere ETBn pelikula itzultzaile gisa. Gaztaroan Venezuelara joan zen non Sábado, Garcia Marquez, Benedetti eta Vargas Llosaren literaturarekin egin zuen topo.

Handik bueltatzean *Egin* egunkarian egin zuen lan, zuzentzaile gisa. Gaur egun, ordea, literaturari emana da bete- betean.

Hutsatik esperantzara poema liburua deitzen da bere lehenengo lana, zeinekin *Irun Hiria* saria eman zioten 1975an. Harrez geroztik Ipuingintza eta haur-gazte literaturan ere jardun duen arren, nobelagintza izan da bere sorkuntza lanaren altxorrik preziatuena. Lehenengoz idatzi zuen nobela *Oilarraren promesa* da 1976an, *Kritikaren Saria* irabazi zuenarekin.

1989an *Babilonia* idatzi zuen. Horren ostean, beste askoren artean hauek argitaratu zituen: *Lur bat haratago* (2000, Elkar), *Odolean neraman* (2004, Elkar), *Bestea da mundua* (2008, Elkar), *Haragiaren gauak eta egunak* (2009, Elkar).

Sarrera

Karlistaden garaiko Euskal Herriko baserriarren bizitza tratatzen du eleberri honek. *Babilonia* baserriko familia istorioaren abiapuntu, 30. hamarkadako gatazka historikoak kontatzen dira; familiaren gorabehera pribatuek aparte. Beti ere maitasuna eta euskal mitologia eta magia alde batera utzi barik. Kontaketak narratzaile orojakile batek egiten ditu batzuetan, eta istorio barruan dauden bi pertsonaia beste batzuetan. Horrek ikuspuntu desberdinak ezagutzeko aukera paregabea ematen digu.

Babilonia

Kokapena

Nobela hau karlistaldien garaian koka dezakegu. Fernando VII.a 1833an hil zen bere alaba Isabeli Espainiako tronua utziz. Isabel adingabekoa zenez, Maria Kristina, bere ama, arduratu zen erregeordetzaz. Baina, urte batzuk lehenago Lege Salikoa, hau da, emakume batek tronua heredatu ezin duela zioen legea, jarri zen indarrean. Gainera Fernando VII.aren anaiak, Karlos Maria Isidro, ez zegoen bere iloba Espainiako tronua heredatzearekin ados, uste zuelako bera izan behar zela Espainiako errege berria. Horrek bi pentsaera mota sortu zituen herritarren artean: alde batetik Karlos Maria Isidro errege izatea nahi zutenak zeuden, *karlistak*, *alegia*; eta bestetik, Isabel II.a Espainiako erregina izatea nahi zutenak zeuden. Bigarren hauek *Isabelinoak* edo *liberalak* ziren.

Horrela sortu zen lehenengo karlistaldia (1833-1840).

Hasiera batean liberalek indarra handiagoa hartu zuten. Baina Tomas Zumalakarregik antolatutako gerra arrakastatsuagatik, karlistak euskal lurraldetan indartsu egin ziren eta liberalak garaitu zituzten hainbat gerrillatan. Hala ere karlistei ez zitzaien garaipen hori denbora askoz iraun. Liberalak berriro indarra berreskuratu baitzuten eta karlistek gerra galdu zutelara onartu behar izan zuten azkenean. *Babilonian* esandako hau argi eta garbi ikus eta uler daiteke.

Gaia

Euskal Herriko baserri bateko bizimodua eta bertako kultura tratatzen du. Baserritarren familia bateko kideen arteko tratua ideia nagusia izanik.

Baina horretaz aparte, azpi-gai batzuk ere baditu: amodioa, natura, magia mitologiarekin nahastuta, gerra (karlistadak), eta horrekin batera gerrak sortutako pentsamendu motak. Tradizionalak eta kristauak alde batetik, hau da, karlistak; eta progresistak eta erreformatzaileak bestetik, liberalak.

Argumentua

Bedania deituriko herri batean, Babilonia baserrian, Garayaldetarrak bizi dira. Familiako kideen arteko tratuak desberdinak dira: Kaxiano, eleberriaren narratzaileetako bat, bere anai gormutuarekin ondo baino hobeto konpontzen da. Haien bi anai bikiak, ostera, norgehiagoka eta aurrez- aurre dabilta egunero. Haien artean haserrealdi larriak gertatzen dira, bata besteari maiorazgo izateko aukera kentzen diolako eta maite duen neska baita ere.

Nagusitu ahala, etxeko kide bakoitzak erabaki guztiz desberdinak hartzen ditu haren bizitzari dagokionez, horregatik bakoitzaren bizitza kontatzen da.

Istoria

Bedania herrian hiru baserri daude: *Azaola*, *Moabe* eta *Babilonia*. *Moaben* Roxali bizi da, bere biloba Margarirekin. *Babilonian* Gabriela bizi da, Roxaliren lagun mina dena. Gabrielaren senarra, Zirilo, istripuz hiltzen da, baina lehenago, zortzi seme alaba izaten dituzte, haietatik Demetrio, Zipriano eta Bernardo *Babilonian* bizi dira. Behin aita hilda Zipriano da baserriko maiorazgoa eta aipatutako bi anaiekin, bere emaztearekin (Baxili), eta haien lau semeekin (Trinido, Feliziano, Kaxiano eta Klemente) bizi dira. Trinido eta Feliziano anai bikiak dira eta haien osabak bultzatuta beti dabilta aurrez- aurre, bata bestea garaitu nahian. Trinidok Feliziano gauza guztietan garaitzen du, eta horrek Felizianorengan gorroto handia eragiten du. Horregatik trauskilki eta desatseginki jokutzen du ingurukoekin. Bere aitak orduan, erabakitzen du nahiz eta berari dagokion baserriaren maiorazgoa, bere anaia Trinidori ematea. Gainera Felizianok Margari maite du, baina Margari ez du bera maite, Trinido baizik.

Hori horrela bere osaba Demetriorekin doa gerrara, karlisten alde borroka egitera. Baina lur jota bueltatzen da handik, alde batetik osaba hiltzen zaiolako eta bestetik, pentsamendua guztiz aldatzen zaiolako. Gero erabakitzen du hiriko gizona izan nahi duela eta Ameriketara joaten da.

Babilonia

Bitartean, Zipriano hiltzen da. Ostera, Trínido eta Margari ezkontzen dira eta Margari Babiloniara bizitzera doa. Gero amona Roxali, Baxili eta Osaba Bernardo hiltzen dira.

Feliziano Ameriketatik aberastua bueltatzen da eta *Azola* baserria erosten du. Liberalekin batera trena Bedaniatik pasatzea aukera paregabea dela erabakitzen dute eta apustu baten bidez Trínidori haren lursailtako zati bat erosten dio handik trena pasarazteko.

Margarik Babiloniako lurrekin lotura berezi bat duenez, trenaren erruz, min fisikoa sentitzen du azalean eta haurdun gelditzen den bakoitzean umea galtzen du. Urte batzuk geroago bere senarra tropa karlista baten laguntzaz trena suntsitzea lortzen du, eta segituan mendirantz ihes egiten du. Felizianok hori jakitean *Babiloniara* doa eta Margari bortxatzen du, hau haurdun utziz. Hilabete batzuk geroago Trínido etxera bueltatzen da eta Kaxianoren bidez jakiten du gertatutakoa, orduan bere anaia duelu batera desafiatzen du.

Dueluan, azkeneko momentuan, Kaxiano da Felizianori burua moztzen diona, Trínido izan beharrean.

Etxera bueltatzean Trínido konturatzen da bere anaia zela haren bizitzeko arrazoi nagusia, haren gainetik egotea zelako aurrera indarrez jarraitzera laguntzen zion gauza bakarra; gainera ezin du jasan Margarik bere anaiaren ume bat izatea sabelean eta etxetik alde egiten du.

Hilabete batzuk geroago umea jaiotzen da, hilda. Margarik hala ere, oztopo hori gainditu eta zoriontsua izatea lortzen du, Klemente eta Kaxianorekin. Baina gutxira trena berreraikitzen dute liberalek eta berriro gaixotu egiten da. Orduan Klemente trenaren aurrean jartzen da, hau gelditzeko asmoz baina trenak harrapatu eta hil egiten du.

Azkenik, San Juan gau batean, Kaxiano etxetik kanpo dagoen bitartean, Margarik etxeari su eman eta bertan hiltzen da.

Ondorioz, Kaxiano gelditzen da bakarrik, Babiloniatik bizirik dirauen bakarra delarik.

Egituraketa

Nobela honen egitura nahiko berezia da. Hasteko, ez dago kapituluka eraikita, zatiak narratzaile aldaketak zehazten ditu. Hiru narratzaile

Babilonia

txandakatzen dira istorioa kontatzeko. Bata narratzaile orojakilea da, hirugarren pertsonan aritzen dena; bestea bigarren pertsonan egiten du, Lurruspeko Marik Margariri honen bizitza kontatzen dionean. Hau batzuetan orojakilea da eta beste batzuetan lekuko gisa jokatzen du. Azkenik, lehenengo pertsonan, Kaxiano Garayalde bere ikuspuntua kontatzen digu.

Denborari dagokionez gertaera nagusia egitura lineal bat jarraitzen du. Hala ere, aurrera edo atzerako salto anitz egiten ditu. Hau da, pertsonai nagusien bizitza txikiak direnetik nagusitu arte kontatzen dira. Baina honen bitartean iraganeko eta etorkizuneko pasadizoren bat edo beste tartekatzen da noizean behin.

Pertsonaiak

- Zipriano

Zirilo eta Gabrielaren semea da. Zortzi seme-alabetatik nagusia da, beraz *Babilonia* baserriaren maiorazgoa da hil arte. *Babiloniako indartsua* esaten diote. Bikien arteko haserrearen errudun nagusia da, baserria noren eskuetan utziko duen erabakitzen duelako. Felizianorekin haserretzen da hirira doanean eta honek madarikazio bat botatzen dio, hilabete batzuk geroago hilko da.

- Baxili

Ziprianoren emaztea da. Lasaia eta moldakorra da. Ez zaio gustatzen haien semeei Demetriok erakusten dizkien gauza asko, gerrari buruzkoak gehienak. Beldur du bere semeak gerrara joateaz eta ahaleginduko da hori saihesten.

- Kaxiano

Zipriano eta Baxiliren hirugarren semea da. Lehenengo pertsonako narratzaile gisa jarduten du. Lau anaietatik ahulena eta indargetuena da. Klemente bere anai gormutuaren jagole da, eta harekin pasatzen du egun osoa baserriko lanak egiten. Kaxiano beldurtia, inuzentea, lasaia, maitekorra eta kristaua da askoren artean. Berak ez du nahi gainerakoengandik gailendu. Zoriontsua da aldendurik bizi den arren.

Babilonia

- Trinidado

Zipriano eta Baxiliren semea da, Felizianoren bikia. Harroa da, beti dabil Felizianorekin norgehiagoka. Gainera ia gauza gehienetan berak irabazten dio bere anai bikiari eta hori gainerakoengandik nabarmentzen du. Alper-harria berak altxatzen du lehenengoz, eta horrela lortzen du maiorazgoa. Margarirekin ezkonduko da. Lurra maite du eta kristaua eta karlista da dudarik gabe.

- Feliziano

Zipriano eta Baxiliren semea da, Trinidoren bikia. Hau bezala harroa da eta besteengandik gailendu nahi du. Hala ere, bere nahi guztiak zapuztuko dira bere anai bikiak gauza gehienetan irabazten baitu. Margariren bihotza ere, bere anaiak eskuratzen du eta horrek bere barruan sekulako gorrotoa ("*harra*") piztuko du. Harrez geroztik bere onetik irtenda ibiliko da, arnegatuta, guztiakin. Ondorioz bere aitak, lehenago jaio zen arren ez du nahi baserria bere eskuetan utzi eta Trinidadori uzten dio. Felizianok ez du bere anaia bezain beste lurra maite, hortaz, konturatzen da hiriko gizona izan nahi duela. Ameriketara doa eta aberastuta bueltatzen da. Gaztarotik, bere familian erakusten dioten bezala, karlistak onak direla uzte du, baina nagusitzen denean liberalen alde agertzen da.

- Klemente

Zipriano eta Baxiliren seme gazteena da. Gor-mutua da eta Kaxianorekin ondo baino hobeto konpontzen da. Zeinuekin eta begiradekin komunikatzeko gai dira. Bere bi anai bikien bezain indartsua da, baina bere ezintasuna dela eta, inork ez du aintzat hartzen. Klemente Kaxiano bezala oso maitekorra da.

- Osaba Demetrio

Ziprianoren anaia da. Gerrara joan zen Zumalakarregirekin, Karlistadetan. Karlista da goitik behera. Gerratik harrotuta bueltatzen da eta bere ilobei gerrako pasadizoak kontatzen dizkie egunero. Trinidado eta Feliziano zirikatzen ditu aurrez aurre egiteko, dena lehiaketa bat bihurtu nahi du. Beraz, bikiak haien artean hain txarto konpontzearen errudun nagusienetakoa dela esan genezake. Kapitaina izateko gutxi falta zaionean hil egiten da liberalen esku.

Babilonia

- Osaba Bernardo

Zipriano eta Demetrioren anaia da. Kaxianoren antza handia du. Baketsua, lasaia eta zuhurra da. Gerrara joan zen, non beso bat galdu zuen. Baina bere anaia Demetrio ez bezala, gerrak lur jota utzi zion. Etxean bere ahotsak ez du indar handirik, eta berak esandakoa ez du inork aintzat hartzen, Baxili izan ezik.

- Margari

Moabe baserriko emakumea da. Marirekin hitz egiten du, bere bizitza kontatzen diona. Bere ama, Xalustiana, umea zenean hil zen eta harrezkero amama Roxalik zaindu du. Roxalik "*Eguzki Gorri*" deitzen dio, ilegorria delako. Trinidorekin ezkontzen da eta *Babiloniara* doa bizitzera, hala ere, Felizianok bera maite duela daki. Naturarekin komunikatzen da lotura berezi bat baitu harekin. Bere amona bezala hildakoekin hitz egiten du suaren bidez. Oso azkarra, kristaua eta bihotz onekoa da.

- Amona Roxali

Moabeko baserrian bizi da. Margariren eta beste bost mutilen amona da, baina Roxali da gehien maite duena. Herriko emagina eta medikua da, horregatik maite du hainbeste natura, sendabelarrak ezagutzen dituelako. Bere amak Elizarekin arazoak izan zituen, Lurruspera joaten zelako han bizi zen Mariri gauzak eskatzera, baina abemariak atzekoz aurrera errezatzen zituen. Roxalik, ordea, familiaren izena garbitu zuen Lurruspen bere amak ez bezala abemariak errezatu zituen batean, Bedaniako herria hodei- mehatxagarri batzuetatik libratuz. Hiltzerakoan Margari *Babilonian* bizi da jada, baina harekin komunikatzen da oraindik ere.

- Lurruspeko Mari

Lurruspeko haitzuloan bizi da. Roxaliren amarekin hitz egiten zuen, gero Roxalirekin baita eta haren biloba Margarirekin ere. Margariri bere bizitza, jaiotzen denetik hil arte, kontatzen dion hizlaria da.

Baliabideak

Nobela honek hiru narratzaile mota ditu, baina lehenago azaldu dugu beraz ez dut berriro egingo.

Babilonia

Hala ere esango dut narrazio horietako bat, Marirena, hain zuzen ere, elkarrizketaz osatzen dela soilik, eta ez duela narraziorik elkarrizketaz aparte. Beste biak ordea, narrazio soilak dira, bata lehenengo pertsonan eta bestea hirugarrenean.

Nobelan zehar era askotako figura erretorikoak aurki ditzakegu.

Hasteko bi metafora argi eta garbi dira azpiko hauek:

“ ...

- Ze koloretakoak nahi dituzue moxalak?
- Nik, zuria- erantzun zion Trinidadok.
- Ba nik, orduan beltza- Felizianok.

Beltza eta zuriaren antzera bait zeuden bi anaiak. Elkarren kontra, aurrez- aurre. “ (52)

Kolore zuria karlistei egiten die erreferentzia, aingeruak zirelako, Trinidad, izan ere, karlista zen. Kolore beltza liberaleri egiten die erreferentzia. Baseritarrak karlistak zirenez gehienak, haietzako txarrak ziren liberalak eta horregatik deabruak zirela esaten zuten. Feliziano, oraindik ez daki baina liberalen alde agertuko da nagusitzean. Zaldien kolorea, beraz, haien pentsaera politikoei egiten die erreferentzia.

“ ...

- Atzo amets egin nuela suzko andre batekin.
- Marirekin?
- Bai.
- Eta zer esan zizun?
- Hiru kamelia gorri odolezko eta kamelia zuri bat usozko.” (78)

Kameliak esaten duenean umeei egiten dio erreferentzia. Umeak bere sabelean hil egingo direla esan nahi du.

Konparaketa nahiko ere badaude. Askoren artean hauek dira nabarmenenak.

“Bildu omen ziren behin batean txori guztiak Erregea aukeratzeko (...) esan beharra bait dut neure anaia indartsuen artean txepetxa arranoen aurrean bezala sentitu izan nintzela ni beti” (125)

Babilonia

Kaxianok txepetxarekin konparatzen du bere burua.

“Ke beltza darion burnizko herensugea da trena, su eta fu dariona, deabruaren asmakizun” (90)

Trena Margarik amestutako herensugearekin ari da konparatzen.

Esaera zaharren bat ere badago:

“ ... ahuntzaren gauerdiko eztulak baino gutxiago balio zuen” (64)

Esaera honek esan nahi du ezer gutxi balio duela zerbaitek. Kasu honetan osaba Bernardoren hitzei egiten die erreferentzia.

Azkenik bertso eta kanta ugari aurki daitezke. Horietako batzuk hauexek dira:

“Ilargi begi,

jainkoaren begi,

Aitonari goraintzi” (13)

“ Entzule maite bihotzekoa,

bukatu zaigu denbora;

baina hala ere,

ni joan aurretik (...)

sartu iezaioak hurrengorako ipurditikan polbora!” (96)

(Oharra: aipamen hauen orrien zenbakiak ibookaren bertasioaren araberakoak daude jarrita.)

Iritzia

Eleberri hau gainerakoengandik nabarmentzen da kontatzeko modua dela eta. Hiru narratzaile baititu, eta hiru pertsona desberdinengan informazioa eskuratzen dugulako da berezia. Baliabide horrek hasieran zaildu dezake testuaren ulermena, izan ere, hasieran narratzaile bakoitzak era desordenatuan azaltzen ditu gauzak. Baina irakurri ahala istorioak sinkronizatzen dira eta errazagoa egiten da ulermena.

Babilonia

Irigoienek erabilitako hizkuntza ulergarria da gehienetan baina hainbat figura erretorikoren erabilpenak direla eta arreta handiz irakurri beharra dago liburua, gauza guztiak ondo igarri ahal izateko. Hori trikimailu bat izan liteke irakurlearen atentzioa deitzeko.

Pertsonaiei dagokienez bereizgarriak dira. Hau da, idazleak lehenengo momentutik azaltzen du nolakoa den pertsonai bakoitza, guztiz ezagutzen ditugula uste dugun arte. Horri esker, batzuetan, susmatu dezakegu zer akzio egingo duen bakoitzak. Alde horretatik Joan Mari Irigoienek lan paregabea egin du.

Babilonia interesgarria da ondoko ezaugarri hauengatik.

Lehendabizi, gerraren garaiari erreferentzia egiten dioenez, gerrari buruzko datu errealak agertzen dira. Hori Euskal Herriko historiari buruzko jakintza areagotzen laguntzen gaitu eta garai horiek hobeto ulertzen. Baserriko bizimodua ere ulertzeko balio du.

Bigarrenez, estilo mitologikoa eta magikoa duela esan dezakegu. Lurruspeko Mari Euskal Herriko mitologiako pertsonaiarik garrantzitsuenetarikoa baita. Era berean margarik naturarekiko duen konexioa (animaliekin eta hildakoeekin hitz egin, gertatuko dena amestu, trena bere baserriko lursailetik pasatzerakoan mina sentitu) magikoa da. Ezaugarri hau arraroa gerta daiteke hasieran baina eleberriari originaltasuna ematen dio eta aipatzekoa da horregatik.

Laburbilduz, obra hau sorpresaz betea dago istorioa kontatzeko eragatik, duen estilo magikoagatik eta kontaketa batzuek mantentzen duten misterioagatik.

Bibliografia

- ◆ *Babilonia*, Joan Mari Irigoien, Elkar.
- ◆ www.idazleak.org/euskara/idazleak/Joan-Mari-Irigoien
- ◆ eu.wikipedia.org/wiki/Joan_Mari_Irigoien
- ◆ eu.wikipedia.org/wiki/karlistaldiak
- ◆ eu.wikipedia.org/wiki/lege_salikoa